23

# EUSKADIKO ORKESTRA

24



# RAVEL FALLA

1
**Abendua** / Diciembre
**19:30**

**Pamplona / Iruña**
BALUARTE

euskadikoorkestra.eus

Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad pública del Gobierno Vasco

# EUSKADIKO ORKESTRA

**Zuzendari Titularra** / Director Titular: **Robert Treviño**

**KONTZERTINOA**
**CONCERTINO**
Liana Gourdjia

**I BIOLINAK** / VIOLINES I
Beatrice Gagiu (1) (5)
Xabier de Felipe (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

**II BIOLINAK** / VIOLINES II
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Marie Héloïse Arbus (5)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Kamran Omarli
Ricardo Ruiz
Igor Torre

**BIOLAK** / VIOLAS
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (4)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

**BIOLONTXELOAK**
**VIOLONCHELOS**
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Natalia Díaz
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

**KONTRABAXUAK**
**CONTRABAJOS**
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

**FLAUTAK** / FLAUTAS
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

**OBOEAK** / OBOES
Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont
Hervé Michaud

**KLARINETEAK**
**CLARINETES**
Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

**FAGOTAK** / FAGOTES
Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

**TRONPAK** / **TROMPAS**
Marcos Cruz (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Ignacio Sánchez (3) (5)
Jean-Luc Casteret
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

**TRONPETAK** / TROMPETAS
Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

**TRONBOIAK** / TROMBONES
Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Frédéric Boulan (5)
Daniel Ruibal

**TUBA**
Oscar Abella (2)

**TINBALAK ETA PERKUSIOA**
**TIMBALES Y PERCUSIÓN**
Igor Arostegi (2)
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Irene Rodríguez (3) (5)
Xabier Peña

**HARPA** / ARPA
Iván Bragado (2)

(1) **Kontzertinoaren laguntzailea** / Ayuda de concertino
(2) **Bakarlaria** / Solista
(3) **Bakarlari-laguntzailea** / Ayuda de solista
(4) **Lehen tuttia** / Primer tutti
(5) **Aldi baterako kontratazioa** / Contratación temporal





Agurra / Despedida

Euskadiko Orkestra sortu zen une beretik, 41 urtez, oboejolea izan ostean, Rafael Alonsok azken abonu-programa izango du honakoa. Hasiko duzun ibilbidea zorionekoa izatea opa dizugu eta bihotzez eskertzen orkestraren garapenari egindako ekarpena.

Rafael Alonso ha sido oboe de Euskadiko Orkestra desde que esta se fundó hace 41 años, y este será el último programa de abono en el que participará. Te deseamos todo lo mejor en esta nueva etapa y te agradecemos de corazón tu contribución al desarrollo de la orquesta.



**JUANJO MENA**
**Zuzendaria** ˚ Director



**CLARA MOURIZ**
**Mezzosopranoa**
Mezzosoprano



**ALFONSO GÓMEZ**
**Pianoa** ˚ Piano

**EGITARAUA** ^ PROGRAMA

I

## GABRIEL PIERNÉ (1863-1937)
**Ramuntcho. Obertura** [8']

## MAURICE RAVEL (1875-1937)
**Concierto para piano y orquesta en sol mayor** [23']

I. Allegramente
II. Adagio assai
III. Presto

II

## MANUEL DE FALLA (1876-1946)
**El sombrero de tres picos (ballet)** [43']
Argitaletxea / edita: J. & W. Chester, Ltd.

Introducción
PARTE I:
- La tarde
- Danza de la molinera
- Las uvas

PARTE II:
- Danza de los vecinos
- Danza del molinero
- Danza del corregidor
- Danza final

**Babeslea** / Patrocina
eitb

Euskadiko Orkestraren 2023/2024 Denboraldian entzungo dugun kontzerturik euskaldunena izango da, ziur asko, arratsalde honetakoa. Hainbat arrazoi daude horretarako. Batetik, lanen aukeraketa; izan ere, bi partituratan garrantzi handia du euskal folkloreak. Eta, bestetik, gaur orkestrarekin batera arituko diren interprete guztiak euskal musikariak direlako. Horietako lehena **Juanjo Mena** gasteiztarra da, gure orkestra-zuzendarien artean nazioarteko ibilbiderik oparoena izan duena, duela hainbat urtetatik. Izan ere, hainbat orkestratako titularra izan da, hala nola Bergengo Orkestrakoa edo BBC Orkestra Filarmonikokoa, eta ospe handia lortu du Estatu Batuetan; bertan, herrialdeko orkestra garrantzitsuenetako asko zuzendu ditu, esaterako, New Yorkekoa, Bostongoa, Baltimorekoa edo Chicagokoa.

Gasteizko beste artista bat ere izango dugu gure artean. Euskal musikari honek ere ospe handia du, baina kasu honetan pianojolea da: **Alfonso Gomez**, Friburgoko eta Stuttgarteko Musika Unibertsitateetako irakaslea, eta musika garaikideko espezialista ospetsua. Gure solista izango da gaur, euskal publikoak gehien maite duen pianorako kontzertuetako batean. Azkenik, eta gure lurreko artisten triunbiratu hau osatzeko, **Clara Mouriz** mezzosoprano donostiarrak parte hartuko du kontzertuaren bigarren zatian. 2016an egin zuen debuta Euskadiko Orkestrarekin, Canteloubeo euskal abestien bilduma eder bat abestuz. Oraingoan, berriz, nazioarteko ibilbide garrantzitsua egin ondoren itzuliko da, eta Fallak iberiar penintsulako musiketan inspiratuta sortu zituen melodiak abestuko ditu.



Lehendabizi **Gabriel Pierne**k 1908an Pierre Lotiren ***Ramuntcho*** eleberriaren antzerki-moldaketarako idatzi zuen musika intzidentalaren *Obertura* entzungo dugu. Kontrabandisten talde baten gorabeherak kontatzen ditu eleberriak eta publikoak azkar antzemango ditu istorioaren akonpainamendu gisa Piernek aukeratu zituen doinu tradizionalak. Ondoren, euskal eragina duen pianorako errepertorioko lanik garrantzitsuenetako bati helduko diogu, **Maurice Ravel**en ***Kontzertua solen*** (hasiera batean *Divertimento* izena jarri behar zion), lapurtarrak berak honela deskribatu zuena: “Kontzertu bat, hitzaren zentzurik jatorrenean. Esan nahi dut Mozarten edo Saint-Saensen antzeko espirituarekin idatzita dagoela, neurri handi batean. Kontzertu bateko musikak, nire iritziz, arina eta distiratsua izan behar du, eta ez ditu sakontasuna edo efektu dramatikoak bilatu behar”. 1932ko urtarrilean estreinatu bazen ere, *Kontzertua solen* obrak 1910eko hamarkadako lehen urteetan du jatorria, euskal abesti herrikoiei buruzko pianorako kontzertu baten proiektuan; lan hari *Zazpiak-Bat* izena jartzea pentsatzen zuen. Lan hura alferrik galdu zen, ordea, Lehen Mundu Gerraren hasieran Ravel Frantzia hegoaldera lekualdatu zenean Parisen ahaztu baitzitzaizkion zirriborroak. Dena den, ideietako batzuk berreskuratu zituen gaur entzungo dugun obra honetarako, eta haren lehenengo mugimenduan oso agerikoa da txisturako eta danbolinerako musikaren fisionomia. 1928an Estatu Batuetan egin zuen biran Ravelek jaso zuen jazz musikaren eragina ere funtsezkoa da kontzertu honetan. Hala, lapurtarraren ekoizpenaren zati handiena poesian eta exotismoan inspiratuta badago ere, kasu honetan kutsu biografikoa du kontzertuak.

*Kontzertua solen* sortzeko xehetasunez lan egin behar izan zuen Ravelek bi urtez. Beti izan zen perfekzionista konposizioak egitean, baina joera hura areagotu egin zen haren bizitzaren amaiera aldera. “Oxford eta Londres arteko tren batean iritsi zitzaidan lehen gaia”, gogoratu zuen estreinaldiaren ondoren. “Baina hasierako ideia ez da ezer. Zizelkatze-lana hasten da orduan. Dagoeneko atzean geratu dira konpositorea inspirazioak astintzen zuela eta ideiak paper zati batean jo eta ke zirriborratzen zituela uste zen garai haiek. Musika idaztea, ehuneko hirurogeita hamabostean, jarduera intelektuala da. Baina, sarritan, atseden hartzea baino atseginagoa izaten da niretzat ahalegin hori”.

Obra honek Ravel pianojole aparta izan zela erakusteaz gain, orkestraren erabileran zuen maisutasuna erakusten du. Ravelen orkestrazioak, gaur egun, funtsezko aztergaiak dira konposizioari buruzko irakaskuntzan. Anton Garcia Abrilen hitzetan, *Valses nobles et sentimentales* lanean laburtzen dira ikasleek orkestrazioari buruz jakin beharreko guztiak. Bere garaian, ordea, kritikak jaso zituen Ravelek, haren orkestra-idazkeraren konplexutasuna zela eta. Sarritan entzuten ez ziren instrumentuak erabiltzen zituela leporatzen zioten. “Kentzen badira, entzuten dira”, erantzuten zuen hark.

*Amodio sorgina* lanaren Madrilgo estreinaldi apala egin eta bi hilabetera, 1915eko apirilean, Maria Martinez Sierrak (“gitanería” hartako libretista) elkarlan berri bat proposatu zion **Manuel de Falla**ri, “baikorra eta alaia, lur, ogi eta mantzanilla zaporekoa… diru mordo bat emango duena”. Fallak ***Hiru puntako kapela*** jarri zuen mahai gainean, Pedro Antonio de Alarcónen eleberria. Ondare herrikoian errotutako erromantze pikareskoa zen, moralizatua. Lanaren jatorrizko bertsioa 1917ko apirilaren 7an estreinatu zuten, Eslava Antzokian, eta arrakasta handia izan zuen, bai entzule kopuruari dagokionez, bai kritikari dagokionez; Fallak “zalantzarik gabe espainiarra den giroa” islatzeko izandako erraztasuna goraipatu zuen kritikak. Iberiar penintsulako hainbat dantzaren erritmoak eta armoniak bildu zituen horretarako Fallak, jotatik eta farrucatik hasi, eta fandangora edo seguidilletara. Material harekin forma eman zion haren lanari, eta honela definitzen zuen berak: “Erritmoaren eta sonoritatearen bidez sentimenduak, izakiak eta lekuak gogora ekartzeko arte magikoa”.

Sergei Diaghilevek Fallaren proiektua ezagutu zuen 1916an, Errusiar Balletak Espainian egon zirenean. Ez zuen lortu lana estreinatzea, baina pantomima hura ballet bihurtu zezan konbentzitu zuen cadiztarra. Hala, Londreseko Alhambra Antzoki moriskora eraman zuten balleta 1919ko uztailean, Leonide Massineren koreografiarekin eta Pablo Picassoren dekoratuekin/figurinekin. Fallak sakon berrikusi zuen partitura, zatiak kendu edo gehitu zituen, eta orkestran proiektatu zuen jatorrizko bertsioan erabiltzen zuen talde instrumental txikia. Espainiako baliabide tipikoak ere gehitu zituen, hala nola kaskainetak eta sarrerako *ole*-ak. Muinean Espainiako kostunbrismoa zuen musika izan zen emaitza, baina, paradoxikoki, konposizioaren baliabideak maisutasunez sofistikatu zituen.

MIKEL CHAMIZO

El de esta tarde es, probablemente, el concierto más genuinamente vasco que podremos escuchar en esta Temporada 23/24 de Euskadiko Orkestra. Lo es por múltiples razones: en primer lugar, por la selección de obras, con dos partituras en las que el folclore vasco juega un papel fundamental; y, en segundo lugar, porque todos los intérpretes que actúan hoy con la orquesta son músicos vascos con gran proyección internacional. El primero de ellos es el vitoriano **Juanjo Mena,** que es, desde hace ya años, nuestro director orquesta con la carrera internacional más estelar, ya que ha sido titular de orquestas como la de Bergen o la Filarmónica de la BBC, y se ha labrado un gran prestigio en Estados Unidos, donde ha dirigido a muchas de las orquestas más importantes del país, por ejemplo, las de Nueva York, Boston, Baltimore o Chicago.

Contaremos también con la presencia de otro artista vitoriano, asimismo uno los músicos vascos más reconocidos, aunque en este caso como pianista. **Alfonso Gómez**, profesor en las Universidades de Música de Freiburg y Stuttgart y un consagrado especialista en música contemporánea, será nuestro solista de hoy en uno de los conciertos para piano más queridos por el público vasco. Por último, y completando este triunvirato de artistas de la tierra, la mezzosoprano donostiarra **Clara Mouriz** tomará parte en la segunda parte del concierto. Si su debut en una temporada de Euskadiko Orkestra se produjo en 2016, cantando una preciosa colección de canciones vascas de Canteloube, regresa ahora, ya con una importante carrera internacional a sus espaldas, para abordar las melodías que Falla creó inspirándose en las músicas de la península ibérica.



Tras la *Obertura* de la música incidental que **Gabriel Pierné** escribió en 1908 para la versión teatral de la novela ***Ramuntcho*** de Pierre Loti, que narra las peripecias de un grupo de contrabandistas y por la que desfilan numerosas melodías tradicionales que el público reconocerá rápidamente, nos detendremos en una de las obras de influencia vasca más importante del repertorio para piano. El labortano **Maurice Ravel** describió su ***Concierto en sol***, que en primera instancia iba a llamarse *Divertimento*, como “un concierto en el sentido más auténtico de la palabra: me refiero a que está escrito, en gran medida, en un espíritu similar a los de Mozart o Saint-Saëns. La música de un concierto debe ser, en mi opinión, ligera y brillante, y no perseguir la profundidad o los efectos dramáticos”. Aunque se estrenó en enero de 1932, el germen del *Concierto en sol* se remonta a los primeros años de la década de 1910, al proyecto de un concierto para piano sobre temas populares vascos que pensaba titular *Zazpiak-Bat.* La obra se malogró porque Ravel olvidó los esbozos en París cuando se trasladó al sur de Francia al estallar la Primera Guerra Mundial, pero recuperó algunas ideas para el *Concierto en sol,* en cuyo primer movimiento es claramente reconocible la fisonomía de la música para txistu y tamboril. El jazz, del que Ravel pudo empaparse en su gira estadounidense de 1928, es otra influencia fundamental en un concierto que, al contrario que la mayoría de su producción, inspirada por la poesía y el exotismo, tiene algo de biográfico.

El *Concierto en sol* le exigió a Ravel dos años de dedicación minuciosa y detallista, un perfeccionismo que siempre había aplicado a sus composiciones pero que fue pronunciándose hacia el final de su vida. “El tema inicial me llegó en un tren entre

Oxford y Londres", recordaría tras el estreno. "Pero la idea inicial no es nada. Empieza entonces el trabajo de cincelado. Ya hemos superado aquellos días en los que se pensaba que el compositor era sacudido por la inspiración, garabateando febrilmente sus ideas en un pedazo de papel. Escribir música es en un setenta y cinco por ciento actividad intelectual. Pero este esfuerzo es, a menudo, más placentero para mí que descansar".

El *Concierto en sol* no es solo testimonio del magnífico pianista que fue Ravel, también de su magisterio en el uso de la orquesta. Las orquestaciones de Ravel son hoy sujeto de estudio fundamental en la enseñanza de la composición, y Antón García Abril ha llegado a afirmar que todo lo que un alumno necesita saber sobre orquestación está resumido en los *Valses nobles y sentimentales.* En su tiempo, sin embargo, hubo voces que criticaron a Ravel por la complejidad de su escritura orquestal, reprochándole que a menudo usaba instrumentos que no se oían. "Se oyen si se quitan", era su respuesta.

Dos meses después del discreto estreno madrileño de *El amor brujo,* en abril de 1915, María Martínez Sierra, libretista de aquella gitanería, le propuso a **Manuel de Falla** una nueva colaboración que fuera "optimista y alegre, que sepa a tierra, a pan y manzanilla... que dé una burrada de dinero". Falla puso sobre la mesa ***El sombrero de tres picos***, la novela de Pedro Antonio de Alarcón que elaboraba, moralizándolo, un picaresco romance que hundía sus raíces en el acervo popular. La obra se estrenó en su forma original de pantomima en el Teatro Eslava, el 7 de abril de 1917, con formidable éxito de público y crítica, que unánimemente alabó la intuición de Falla para caracterizar "un ambiente que es inconfundiblemente español". Falla lo logró recogiendo los tipos rítmicos y armónicos de numerosas danzas de la geografía ibérica, desde la jota y la farruca al fandango o las seguidillas. Con ese material, dio forma a lo que él definía como "un arte mágico de evocación de sentimientos, de seres y aún de lugares por medio del ritmo y la sonoridad".



Sergei Diaghilev conoció el proyecto de Falla durante la estancia de los Ballets Rusos en España en 1916. No logró estrenar la obra, pero convenció al gaditano para transformar la pantomima en un ballet que fue llevado al morisco Teatro Alhambra de Londres en julio de 1919, con coreografía de Léonide Massine y decorados/figurines de Pablo Picasso. Falla revisó en profundidad la partitura, quitando o sumando fragmentos y proyectando en la orquesta el pequeño grupo instrumental que empleaba en la versión original. Añadió también recursos típicamente españoles, como las castañuelas y los *olés* de la introducción. El resultado es una música que quintaesencia el costumbrismo español, pero que lo hace, paradójicamente, gracias a una magistral sofisticación en los recursos compositivos.

MIKEL CHAMIZO

**HURRENGO ABONU KONTZERTUA** • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

COPLAND
MAHLER

**Abendua 12** Diciembre | **19:30**

**SARRERAK** ENTRADAS
**10€ < 38€**
euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla

AZKEN ORDU **GAZTEA! 10€**



# PR1MERAN

**SARTU EUSKARAZKO ETA EUSKAL EDUKIEN STREAMING PLATAFORMAN**

Google Play

App Store